



7. EMAKUME DINAMITARIEN PLAZA EMAKUMEAK AITORTZEKO IZENA JARRI BEHARRA

‘Dinamitariak’ Sociedad Anónima Española de la Pólvora Dinámica enpresan (1872) lan egiten zuten emakumeak ziren. Enpresa horri «La Dinamita» ere esaten zioten herrian, eta honako enpresa hauen sorburua izan zen: etorkizuneko Unión Española de Explosivos (1896), Unión Explosivos Río Tinto (1970) eta gaur egun Galdakaon dagoen Maxam (2006). Historiari begira, izen hori betidanik erabili da Galdakaon lan hori garatzen zuten emakumeak izendatzeko, eta, lan horren bidez, euren ekarpena egin zuten Bizkaiko garapen industrialean. Euren bizitzako unerik batean, emakume askok eta askok lan egin dute Alfred Nobelek 1872an sortutako enpresa horretan. Izan ere, enpresak lehen egunetik izan zituen emakume langileak, eta Estatuko industriako lehenengoak izan ziren.

Emakumeak lan horretarako aukeratu zituzten, haien eskuek doitasun handiagoa zutelako prozesu horiek garatzeko orduan. Ez zen lan erraza, ordea, oso produktu arriskutsuak erabiltzen zituzten-eta. Emakume ausartak ziren, lan hori garatzen zutelako, gizarteari aurre egin ziotelako emakumeak etxetik kanpo lan egitea oso ohikoa ez zenean eta, ondorioak ondorio, bertan lan egitea erabaki zutelako. Zenbait emakumek istripuak izan zituzten, eta beste batzuek bizia utzi zuten bizibidea ateratzeko premiaren ondorioz. Erregistroen arabera, hildakoak izan zituen lehenengo istripua 1884ko uztailaren 5ean gertatu zen Santa Marina mendiko magalean kokatutako lehenengo lantegian. Bost emakume hil ziren: **Josefa Valle Ereño**, 25 urte, Galdakaoko dinamitaria; **Juana Azua Zabala**, 22 urte, Galdakaoko dinamitaria; **Josefa Expósito**, 23 urte, Lezamakoa; **María Zárate Meabe**, 20 urte, Lezamakoa; eta **Atanasia Echevarría Zamacona**, 25 urte, Lezamako dinamitaria.

Galdakaoren nortasunaren osagai den legatu hori aitortzeko asmoz, 2018ko martxoaren 21ean, udalak eremu publiko hau ‘Emakume dinamitarien plaza’ izenaz sartu zuen kale-izendegian, tokian tokiko herritarrek Udaleko Berdintasun Kontseiluak bultzatutako partaidetzazko prozesuan halaxe erabaki ondoren.



AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEAK

Emakumeen oroimenaren ibilbidea

2018ko martxoan, Torrezabal Kultur Etxean egin zen emakume horien zeregina berreskuratzen zuen argazki-erakusketa. Bertan, 1920ko, 1930eko eta 1940ko hamarkadetako argazkiak jarri ziren erakusgai. Galdakaoko Udalak eta Maxam Fundazioak sustatu zuten erakusketa. Horrez gain, 2022ko ekainetik, emakume dinamitarien lanaren omenezko horma-irudia dago Gaztain kaleko izkinan. Era berean, 2024an, Erabide Emakume Elkarteak partaidetzazko prozesurako deialdia egin zuen, 'Emakume dinamitarien' biografia Wikipedian agertu zedin.

BAZENEKIEN...

2022ko ekainetik emakume dinamitarien lanaren omenezko horma-irudia dagoela udalerriko Gaztain kaleko izkinan? Horrez gain, 2024an, Erabide Emakume Elkarteak partaidetzazko prozesurako deia egin zuen, 'Emakume dinamitarien' biografia Wikipedian sartzeko.

MI(cro) RELATO

Plastilina que rompe esperanzas

Un trabajo sencillo a primera vista, moldear un poco de goma, envolverla en un papel de parafina y un cartucho más a la caja; qué peligro podría haber en ello, pensaba Juanita. Su madre no lo veía igual, no entendía ese empeño de la hija por trabajar en esa fábrica de explosivos, eso era cosa de hombres.

Aquella mañana de verano de 1884, Juanita salió hacia la factoría contenta como cada día y, como cada día, su madre se quedó triste, qué peligro un puñado de mujeres entre tantos hombres. Por la tarde oyó una explosión y se asomó a la ventana, como mucha otra gente. Cuando llegó la noticia, se dio cuenta de que el peligro era mayor de lo que imaginaba, pero no estaba en los trabajadores que rodeaban a su hija.

Mari Carmen Álvarez López

Esteka interesgarriak

[https://es.wikipedia.org/wiki/Las_Dinamiteras_\(Gald%C3%A1cano\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Las_Dinamiteras_(Gald%C3%A1cano))

<https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/historias-de-cerca/detalle/9506247/las-dinamiteras-de-galdakao/>